

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara Zerbitzua

Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen euskara-ikastaroak – gurasoentzat, merkataritza eta ostalaritzako langileentzat, 55 urtetik gorakoentzat, atzerritarrentzat, udal langileentzat eta langabeentzat – emateko kontratazioa egiteko lehiaketa

2016ko irailaren 23an onetsi zen 2016/CONASP0309 kontratazio-dosierra, Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen euskara-ikastaroak emateko kontratatua esleitzeko.

1. Esleitzen duen toki-erakundea:

- a) Erakundea: Gasteizko Udala.
- b) Dosiera izapidetzen ari dena: Alkatetza eta Erakunde Harremanak.
- c) Dosier-zenbakia: 2016/CONASP0309.

2. Kontratuaren xedea:

- a) Xedearen deskribapena: Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen euskara-ikastaroak ematea.
- b) Kontratu-mota: zerbitzuak.
- c) CPV kodea: helduentzako hezkuntza-zerbitzuak eta beste hezkuntza zerbitzu batzuk.
- d) Aldaerak onartzea: ez da bidezko.

3. Izapideak, prozedura eta esleitzeko era:

- a) Izapideak: ohikoak.
- b) Prozedura: irekia.
- c) Arautze harmonizatuari lotutako kontratua: ez.
- d) Gauzatzeko epea: 2017ko urtarrilaren 1.etik 2018ko ekainaren 30era arte.
- e) Luzapena: hamabi hilabete

4. Kontratuaren zenbatekoa, edo zenbatera artekoa:

- a) Aurrekontua, BEZ barne: 812.375,96 euro.

5. Alderdi juridiko, ekonomiko, finantzario eta teknikoei buruzko informazioa:

- a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.
- b) Behin betiko bermea: kontratuaren aurrekontu osoaren (BEZik gabe) ehuneko 5, baldintzen-agirian aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.
- c) Berme osagarria: ez da eskatzen.
- d) Ordaintzeko era: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- e) Balioespen-irizpideak: administrazio-baldintzen agirian adierazten direnak, beheranzko hurrenkeran.

- f) Sailkapena (taldea, azpitaldea eta kategoria): ez da eskatzen.
- g) Kaudimen teknikoak: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- h) Kaudimen ekonomikoa: ikus administrazio-baldintzen agiria.
- i) Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak: ez
- j) Langileak subrogatzea: ez da egokia.

6. Agiriak eskuratzea:

- a) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte.
- b) Dosierra aztertzea:

Euskara Zerbitzuan aztertu ahal izango da dosierra —Frai Zacarias Martinez kalea, 2 - Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 161616—, iragarkia ALHAOn agertu ondorengo lehen egun baliodunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu bitartean.

Helbide honetan ere aztertu ahal izango da: <http://www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak>

7. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Ondorio horiei dagozkienetarako, San Martineko herritarrei laguntzeko bulegoa itxita dagoen egunak jaieguntzat joko dira —Udalaren web-orriko kontratatzailearen profilean emango da horien berri—.

b) Ordutegia: 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

c) Postaz igortzea: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 80.4. artikuluan adierazitako moduan egin ahal izango da. Postaz bidaliz gero, 945 161600 fax-zenbakira (Erregistro Nagusia) igorri beharko da horren jakinarazpena.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio-baldintzen agiria.

Aurkezteko lekua: Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusia —Teodoro Dublang Margolaria-ren kalea, 25 - behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— aurkeztu beharko dira eskaintzak.

e) Lehiatzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: 3 hilabete.

f) Eskaintzak zabaltea:

B gutun-azala —dokumentazio administratiboa— jendaurrekoa izango ez den ekitaldian zabalduko da, udaletxean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren egun baliodun egokitzen den lehen asteazkenean, goizeko hamar eta erdietan (10:30).

A gutun-azala —eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu behar diren balioespen-irizpideak (prezioa izan ezik) aplikatzeko dokumentazio teknikoak— jendaurreko ekitaldian zabalduko da, udaletxean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean (www.vitoria-gasteiz.org/lehiaketak) adierazten den egunean eta orduan.

8. Iragarkien gastuak: esleipena jasotzen duenaren kontura joango dira.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 26an

Euskara Zerbitzuko burua
PATXI MARTÍNEZ DE MARIGORTA